

**Espediente moetea: Administrazio kontratazioa**

**Kontratuak:** Aholkularitza, Laguntza eta Zerbitzu kontratuak, prozedura irekia, lehiaketa bidez

## **AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA ZERBITZU KONTRATUEN ADMINISTRATIO-BALDINTZA ZEHATZEN**

### **ORRIAK**

## **PROZEDURA IREKIA ETA LEHIAKETA BIDEZKO ESLEIPENA**

### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratuaren xedea hau da: Herri barruan Bermeoko Udalaren, bere Erakunde Autonomoak eta Berualaren gutun, propaganda, jakinarazpen eta bandoak banatzearen zerbitzua.

Kontratu baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen dan dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa dau.

CPV: 64121100-1 eta 64121200-2

### **2. ORGANO ESKUDUNA**

SPKLTBaren 51. artikularen eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Hala ere, 2016ko urtarrilaren 25ean 43. Alkatetzaren Dekretuz eskumen hori eskuordetuta dauka Tokiko Gobernu Batzarrak.

Organoak administrazio-kontratu esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratu interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arazoak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolana ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

### **3. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

Kontratuaren iraunaldia urte bikoia izango da.

Kontratu urtez urte luzatu daiteke, alderdi biek batera horrela erabagitzen badabe, beti ere, jatorrizko kontratu amaitu baino arinago. Kontratuak, luzapenak barne, gehienez, 4 urte iraun daiteke.

Hala ere, kontratu hau iraungitzean, ez bada barria esleitu eta interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, beti ere, kontratu berria esleitu arte; esleipen hori ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

#### 4. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu moeta honen izaerarekin bat etorriz, ez da prezio osoa finkatzen, espada kontratua osatzen dabenean unidateena. Unidate bakoitzaren prezioa, espedientean azaltzen da eta parte hartzaileek diru kopuru hori hobetu leikie.

Banakako prezioak, honako honeek izango dira:

1.- Hartze sigilu bako 1-20gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,37
2.- Hartze sigilu bako 21-50gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,47
3.- Hartze sigilu bako 51-100gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,78
4.- Hartze sigilu bako 101-200gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,08
5.- Hartze sigilu bako 201-350gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,46
6.- Hartze sigilu bako 351-1000gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,72
7.- Hartze sigilu bako 1001-2000gr. arteko karten banaketa herrian.....	3,82
8.- Sastar-batze zerbitzuko ordainagiriaren banaketa herrian.....	0,37
9.- Udaltzaingoa eskumeneko isunen jakinarazpen ziurtatuak herrian.....	2,52
10.- Tributuzko jakinarazpen ziurtatuak herrian.....	2,52
11.- Administraziozko jakinarazpen arruntak herrian.....	2,52
12.- Auzoetako jakinarazpenak.....	2,95
13.- Propaganda, programak eta helbide bako bestelako banaketak herrian.....	0,05
14.- Posta-etxera/tik eroan-ekarriak.....	80 €/hilero
15.-Bando arruntak.....	0,35
16.- Premiazko Bandoak.....	0,50

Halanda be, kontratu honen prezio estimatua, 175.000 eurotan finkatzen da, kontratuaren iraupen osorako, prorrogak barne.

#### 5. FINANTZIAZINOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurrikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar beste kreditu jarriko dauz jagokon organoak.

Aplikagarria den partida hau izango da: 00100-92011-227.10.00

#### 6. NOLA ORDAINDU

Udalari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa. Ordainketa honela egingo da: emondako zerbitzuaren kobrantza-agiria aurkeztu eta 30 eguneko epean.

#### 7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarri denarekin bat etorri –arau horren bidez martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatu zen, alegia, Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzkoa–, bai SPKLTB 89. artikuluan ezarri denarekin bat etorri, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

## 8. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dabe lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa 2.625 € izango da. Esleipena egin eta gero, dirukopuru hori itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dabela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo dauala ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badau bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badau, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badau. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dala eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia iritzita enpresa horri informazioa eskatzen bajako eta berak erantzuten ez badau, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi dauala uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu dauala eta ezin duela bete aitortzen badau, gauza bera uste izango da.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dauzala bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar dau. Berme horren zenbatekoa hau da: 4.375 €.

Berme hori jarteko epea hamar lanegunekoa izango da, kontratuaren esleitu orduko errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik hasita. Berme jarteko bidea, berriz, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen danean, esleipendunari bermea itzuliko jako, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badagoz. Itzulketa hori goian aipatutako testu bateginaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

## 9. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dagozan baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo bere agindupekoei egotz leikie egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Udalak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoala, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak har

daitezela agindu ahal izango dau.

## 10. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete beharko ditu (X. eranskina).

Modu berean, sektoreko gertueneko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko deutsee kontratu honegaz zerikusia daukeen langileeri. Enpresako hitzarmen onuragarriagoa balego, azken hau aplikatu litzateke.

Esleipendunak betebeharrak horreek zehatz beteten dirala bermatu beharko dau uneoro, baita be kontratuaren zatiren bat azpikontratatu balezu.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zerbitzuak ematen jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei dagokienean, aurrez aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz burutuko beharko ditu. Udalak euskara baino ez du erabiliko bere harremanetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez du inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz-mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriari buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharrak, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin daukan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde behar bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez dadin.

Honen guztiaren berme legez, XI. eranskin legez agertzen den konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.

- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzaileztat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu ditzaketen erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen zaizkien kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.

## 11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADEUTSEZ.

Kontratua burutzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

## 12. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratua betetzeko esleipendunari eskatzen jakon kaudimen bereziak dala medio, esleipendunak ezingo dau kontratuaren exekuzinoa azpikontratatu ezta lagatu, baldintza agiri honetako 18. Atalean jasotako gaitasun eta kaudimena betetzen ez dauan ezelako enpresari.

Baldintza horretaz, Kontratastak gainontzekoekin egin ditzakeen azpikontratuak egiteko, SPKLTBko 227., 228. eta 228.bis artikuluetan ezarri diren betekizunak beteko dira. Edozelan ere, esleipendunak, hala bada, gainontzekoekin azpikontratitzen dituen prestazio partzialak ezin dira izan esleipenaren zenbatekoaren 100eko 60 baino handiagoak. Kontratasta nagusiak bere gain hartuko du kontratua betetzeko erantzukizun osoa Bermeoko Udalarekin; azpikontratastak kontratasta nagusiaren aurrean baino ez dira erantzule izango. Kontratastak ezin du kontratua zati baten azpi kontratatu, ordenamendu juridikoari jarraituta kontratatze gaitasunik ez duten pertsonekin, edo SPKLTBko 60. artikuluan jaso diren egoeraren baten dauden pertsonekin.

Esleipendunak alde zurretik eta idatziz jakinarazi behar dio administrazioari azpikontratuak egin nahi dituela. Azpikontratatu nahi duen prestazioaren zatia zein den adieraziko du eta baita azpikontratastaren identitatea ere; eta egiaztatuko du beraren

gaitasuna aski dela betetzeko, bai erabilgarri dituen osagai teknikoei, giza osagaiei eta baita eskarmentuari ere erreparatuta. Baldin eta azpikontratastak azpikontratatu den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratastak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik. Azpikontratastaren gaitasuna egiaztatzea azpikontratua egin eta berehala egin daiteke, baldin eta ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zuritzen bada agiri bidez.

Udalak frogatuko du esleipendunak kontratuan parte-hartzen duten azpikontratastei egin behar dizkien ordainketak bete direla. Horretarako, esleipendunak udalari bidaliko dio kontratuan parte-hartzen duten azpikontratasten zerrenda zehaztua, parte-hartzea burutzen denean, haietako bakoitzak dituen azpikontratate-baldintzekin batera, ordainketa-aldiarekin zuzeneko harremana badute. Era berean, haiek ordaindu dituzten egiaztagiria ekarri behar dituzte, behin prestazioa ematea bukatu denean legean ezarri diren epeetan; hain zuzen ere, SPKLTBko 228. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututakoetan, ezargarri den neurrian.

Betebeharrok kontratua betetzeko oinarritzko baldintzak dira, eta, bete ezean, ordenamendu juridikoan xedatu diren ondoreak sortu ez ezik, plegu honetan jaso diren zehapenak ere jarriko dira.

Kontratu honetatik jaiotzen diren eskubideak eta betebeharrak lagatzeko, SPKLTBko 226. artikuluan arautu denari jarraituko zaio.

### 13. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahalko du hurrengo kasu zehaztuetan eta ezartzen diren mugekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 106. artikulua ezarritakoaren arabera:

- Teknologiaekin lotuta garrantzizko aurrerapen bat agertzen bada edota zerbitzu barriak martxan ipiniko balira, egoera berri horretara egokitzeko edo zerbitzu barriak erabiltzeko aukera izan dau udalak, beti be posta, jakinarazpen eta komunikazioen banaketaren eraginkortasuna hobatzeko, beti be esleipen prezioaren %20a gainditzen ez bada.

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehaztuetan ere kontratua aldatu ahalko da.

Herri-onurako arazoak direla eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan ematen diren kontratu aldaketetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

#### 14. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea kontutan izanda, ez da zerbitzuaren harrera formala egin behar.

Kontratu-mota honen izaera dala eta, ez da berme-eperik jarri behar.

#### 15. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETEN EZ BADAUZ

##### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Udalak bi aukera izango dauz: kontratua bertan behera itzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igaroten dan egun bakoitzeko diru-zigorra ezartea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen dauan bakoitzean, kontratazino-organoak aukera izango dau kontratua bertan behera izteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin daitela erabagitzeko.

##### B) PRESTAZINOEN BURUTZAPEN PARTZIALA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazinoen burutzapen partziala epean bukatzen ez badau, Udalak bi aukera izango dauz: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartea.

#### 16. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 10. atalean xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 19. atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Betetzen dala ziurtatzeko, Administrazioak egokiak diran ikuskapenak egin ahal izango dauz eta behar bestekoak eristen dauzan agiriak aurkezteko eskatu ahal izango deutso esleipendunari.

Hori dana, Administrazioagaz kontratatuzeko debekua aitortzeko egokiak diran izapideak burutzearen kalte barik.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

## 17. UDALAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### 18. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

1.- Prezioa: % 75.

Eskaintzarik onenak 75 puntu hartuko lituzke eta gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira. Horretarako honako formula erabiliko da:

$$P_n = 75 \times (E_o/E_n)$$

$P_n$ , eskaintza ekonomikoaren puntuazioa.

$E_o$ , aurkeztutako eskaintza ekonomikorik baxuena

$E_n$ , eskatzaileak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa.

2.- Banaketak egiteko epeen hobetzea: % 25.

Gehienez 25 puntu lortu ahal izango dira, eta modu honetan emongo dira:

-Orduetan ipinitako epeetan, hobatzen dan ordu bakotzeko, puntu 1 emongo da.

-Egunetan ipinitako epeetan, hobatzen dan egun bakotzeko, puntu 2 emongo dira.

\*Kontratu honen esleipenerako, eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen laugarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gehigoko plantiladun litzitzaileen alde, horrela frogatzen dutenean gaitasun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, hauek aurkezten duten proposamenak eskaintza hoberenaren terminoak berdintzen badituzte, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.



Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukaten minusbaliadun langile kopurua izango da kontuan lehentasun hau aplikatzean, eta III. eranskinaren aitopenearen bitartez kreditatuko da. Lizitatzailerak aipatutako aitopene agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez baditu, ez zaio lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dela ulertuko delako efektu guztietarako, eta ezin izango du inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarrekin edota hainbat lizitatzailerak aldi batera parte hartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gainditzen duten plantillak daukatela ulertzen denean, kontratuan lizitatzailerak bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

Modu berean, lehentasuna ezartzen da Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 Legea betetzen dituzten gizarteratze enpresen alde, beti ere enpresak dituen lanpostuen %30ean gitxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatze konpromisoa hartu badute (IX. eranskina). Baztertze egoeran daudela ulertuko da kasu hauetan daudenak:

Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzen dituztenak.

Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzeko eskubidea ez dutenak egotaldi edo erroldatze epeak ez betetzeagatik, jasotze unitatea izateko baldintzak ez betetzeagatik, edota errenta horiek eskuratzeko gehieneko epeak gainditu dituztelako.

- Adin txikiko babespeneko instituzinoetatiko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

- Errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dauden droga edota alkohol arazodunak.

- Presondegietan preso daudenak, beti ere euren egoerak laneratzea ixten badie eta baita baldintzapeko askatasun egoeran daudenak edota preso ohiak ere.

- Ahalmen-urritasundun pertsonak.

Lehentasun irizpide bi hauek aplikatu eta gero berdinketa mantenduko balitz, prezio merkeena eskaini duen lehiatzailearen alde egingo da esleipen proposamena eta, azken kasu honetan ere berdinketa egongo balitz, zozketaz ebatziko da esleipena noren alde egin.

Esleipena egingo jakon enpresek, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

## 19. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna daben pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dabe kontratazino-jardunbide horretan, baldin eta euren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badabe, eta kontratatze debekuren bat ez badabe, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoiak dirala eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek euren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dabe. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emondako ahalorde askietsia erabili beharko dabe. Pertsona juridiko baten ordezkari baten bitartez bertako kideren bat azaltzen danean, ordezkari izateko ahalmena daukela frogatu beharko dau agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratateko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar jakoz.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar dau kontratu honen gaiarekin, eta euren erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar dauz.

Bestalde, banaketaren antolaketa egokia bermatzeko, lehiatzaileek bulegoa eduki beharko dabe Bermeoko Udalerrian.

Azkenik, Posta zerbitzu unibertsalaren barruan dauden zerbitzuak emateko, enpresa lizitatzailerik baimen administratibo singularra eduki behar dute, Posta Sektorearen Nazio Batzordeak emandakoa, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen IV. Tituluaren III. Kapituluaren ezarritakoaren arabera. Aipatu lege hori posta zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta merkatuari buruzkoa da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldirian, deialdira aurkeztu. (IV. eranskina)

## 20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazino honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazino teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udal honetako Erregistro Orokorra ([berh@z](mailto:berh@z) - Bermeoko Herritarrentzat Arreta Zerbitzua, Ertzilla Kalea 8).

ORDUAK: Goizetan 9:00 - 14:00 eta arratsaldetan 16:30 – 19:00. Zapatuetan 10:00 – 13:00.

EPEA: Egun baliadunetan, lehiaketa honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 15 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak postaz, telefaxeaz edo bide elektronikoz, informatikoz zein telematikoz aurkez daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aipatzen dituen lekuetatik edozeinetan –Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa da arau hori, HAAPEL-.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresaburuak zuritu behar du bidalketa zein egunetan egin den postetxean, eta bidali dela jakinarazi kontratazio- organoari telexez, faxez edo telegramaz, egun horretan bertan. Halaber,

espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena adierazi behar dira.

Telexa, faxa edo telegrama jaso dela egiaztatuko du udaleko idazkari nagusiak bertan eginbidea jarrita. Bi betekizunok ez badaude, proposamena ez da onartuko kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian zehaztutako epea igarota jasotzen badu. Edozelan ere, data heldu eta hamar egun igaro badira agiriak jaso gabe, eskabidea ez da onartuko.

Erabil daitezkeen bide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen, gainera, SPKLTBko hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarri diren betekizunak izan behar dituzte.

Lehiatzaileek kartazal bi (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “ HERRI BARRUAN BERMEOKO UDALAREN, BERE ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA BERUALAREN JAKINARAZPEN ETA BANDOAK BANTZEKO KONTRATAZIOAN LEHIAKETA IREKI BIDEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz.

“A” kartazalaren azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

SPKLTBaren 146.4 artikuluan aukera ematen du artikuluko bereko 1. idatz-zatian adierazten diren agiriak ekartzeko eskaeraren ordean, lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena ekartzea.

Lizitatzailleak, esleitzeko proposamena bere alde egin bada, kontratazio-organoari egiaztatu beharko dio, kontratua esleitu baino lehen, galdatu zaizkion agiriak badituela eta baliozkoak direla. Gainera, prozesua ondo bukatuko dela bermatze aldera, kontratazio-organoak, esleipen-proposamena eman baino lehen edozein unetan, lizitatzailleari eska diezaieke kontratuaren esleipendun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten egiaztagiria ekar dezatela. Gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak badituztela kontuan hartzeko une erabakigarria, proposamenak aurkezteko epea bukatzen denean izango da, betekizunok administrazioarekin kontratatzeko nahitaezkoak baitira.

Erantzukizunpeko adierazpena I. eranskinean dagoen ereduri egokituko zaio.

“B” kartazalaren azpititulua hau izango da: “PROPOSAMENA”. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak

a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo ordezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren pleguaren II. **eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

- BEZa salbuetsita daukaten lizitatuak aurkeztuko balira, BEZari dagokion zenbatekoan zero euro (0,00€) jarri beharko lukete.

- Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.

- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.

- Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.

- Pleguaren II. eranskin gisa ezarritako proposamen eredu nabarmen aldatzen dutenak.

- Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak dituztenak edo funtsik ez dutenak

- Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu.

b) **Epeen hobakuntzak**: parte hartzaileek gehienezko epeak hobatzeko proposamena aurkeztu gurako balebe, **III. eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** aurkeztu beharko dabe.

c) **Lehenespena**. 18. atalean zehaztutako minusbaliadun langileak izateagatik eta gizarteratzeko enpresea izateagatik lehenespena kontuan hartu ahal izateko pleguaren VIII. eta IX. eranskin gisa agertzen diren ereduak aurkeztu beharko dira.

## 21. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITEA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango

deutso lehiatzaileari akatsa zuzen dezan (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean.

“A” kartazalean egon ahal izan diren akatsak zuzentzeko eperik eman bada, epe horrek ez du hilabeteko gehienezko epearen zenbaketa atzeratuko, eta beraz eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz, posta elektronikoz edo faxez.

Hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasatuko dio esleipen proposamena. Proposamen horrek ez du eskubiderik sortuko kontratazio organoak esleipen ebazpena igorri arte.

## 22. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Esleipena hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Edozein kasutan esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen den hurrenkera jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen den parte hartzaileari, errekerimendua egingo zaio, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko (151.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz):

1. Honako agiri honeek aurkeztu:
  - a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
  - b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
    - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
    - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
    - Arduradunaren NAN.
  - c) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
  - d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
  - e) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VII. Eranskina).

- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VI. Eranskina).
- g) Posta zerbitzu unibertsalaren barruan dauden zerbitzuak emateko baimen administratibo singularraren kopia.
- h) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.
- i) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitortpena. (IV. eranskina)

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitzaileen Erregistroan izena eman badago, a) b) c), e), f) eta g) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitzaileen Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (V. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

2. Behin betiko bermea jarri.
3. Baldintza-orri administratibo hauetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diren agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, I. eranskina).

Ziurtagiriok bide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez igor daitezke indarrean dagoen legediarekin bat etorriz.

Epe horretan aurkeztuko ez balitu, uko egiten duela ulertuko da eta zerrendako hurrengoak deituko zaio aipatutako horiek egin ditzan. Uko egiten duenaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 2 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleitu du.

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, webgunean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gutxienezko eduki eta baldintzak jarraituz).

Esleipendun eta lizitzaileek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak honako hauek burutu beharko ditu:

- Udal bulegoetan, kontratua formalizatu aurretik, datu pertsonalak eta

informazio konfidentziala babesteari buruzko klausula (XI. eranskina) aurkeztu beharko dau behar dan moduan bete eta sinatuta.

- Udal bulegoetan kontratua administrazio-agiri gisa formalizatu.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean argitaratuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa denez, BAO n ere publikatuko da (formalizaziotik 24 eguneko gehinezko epean, 154.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Konkretuki, egin ahalko da korreo elektronikoz, lehiatzaileek edo hautagaiek euren proposamenetan zehaztutako helbidean.

Kontratazio-organoak egingo dauan esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berori gauzatzen hasi.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

### 23. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da,

eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **24. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19. artikulua arabera, baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta prestatzea, esleitzea, ondorioak eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenen pean izango dira; administrazio baldintza zehatzen orri honek eta baldintza tekniko zehatzen orria zein horien eranskinak aplikatuko dira; horien ordezeko modura, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Era berean, loteslea izango da esleipendunaren eskaintza (proposamena aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horien eduki osoa, inolako salbuespenik gabe) eta kontratua formalizatzeko agiria.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta baldintza tekniko zehatzen orriaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da kontraesanak arlo juridikoko eta administratibokoak direnean, zein guztiz teknikoak ez diren edozelako kontraesanak direnean. Guztiz teknikoak diren kontraesanean baldintza tekniko zehatzen orria nagusituko da.

#### **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Bermeon, 2018ko urtarrilaren 23an.



## I. ERANSKINA Zinpeko Aitorpena

.....jaunak/an  
dreak, helbidea .....duenak  
eta NAN zenbakia .....duenak, bere izenean  
edo .....(ordezkaritzako ahalmenak  
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,  
.....  
enpresaren, egoitza soziala.....eta  
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DU:

1. Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen ditudala eta onartzen ditudala.

2. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarri diren baldintzak betetzen ditudala, leialtasunez, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak galdatzen duenaren arabera, eta bertan zehazten diren zehaztapenekin eta baldintzekin –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek–.

3. Ez nagoela (eta/edo ordezkatzeko duen enpresa, administratzaileak edo ordezkariak ez daudela) kontratatzeke ezelako debeku- eta bateraezintasun-egoeratan; hau da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 60. artikuluan xedatu dituenetan, bertan zehazten diren zehaztapenekin eta baldintzekin – Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek–.

4. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean nagoela (eta/edo ordezkatzeko duen enpresa), indarreko xedapenek ezartzen dituztenetan; eta, orobat, ez dudala (eta/edo ordezkatzeko duen enpresak) zerga-zorrik ordainarazpen-aldian Bermeoko Udalarekin. Hartara, administrazio-kontratatzaileari baimena ematen diot, esleipendun proposatuz gero, informazio hori eskura dezan, hitzarmenik sinatu duen beste herri-administrazio batzuen datu-baseen bidez.

5. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, altan nagoela.

6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio-arloko zigorra jaso **ez** dutela.

7. Bermeoko Udalarai baimena ematen diot kontratu honi lotutako eskakizun, berri emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoko bidez bidaltzeko behean ageri den helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekin.

Helbide elektronikoa: .....

8. Era berean, konpromisoa hartzen dut kontratazio-organoaren aurrean egiaztatzeke, kontratua esleitu baino lehen edo Udalak eskatzen didan bestelako momentuan, lege eta pleguetan zehazten diren agiriak baditudala, eta baliozkoak direla.

Eta dagozkion ondorioetarako idatzita jasota gera dadin, adierazpen arduratsu hau sinatzen dot, .....n, 2018ko.....(r)en....(e)an.

sinadura”.

## II. ERANSKINA

### Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta .....  
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo .....  
Helbidea eta ..... IFZ daukan .....  
izeneko enpresaren ordez,

#### AITORTZEN DUT:

- I.- .....  
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratuaren arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudako enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpenerako, banakako prezio honeek proposatzen dituzalako, BEZa kanpo:

- 1.- Hartze sigilu bako 1-20gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 2.- Hartze sigilu bako 21-50gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 3.- Hartze sigilu bako 51-100gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 4.- Hartze sigilu bako 101-200gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 5.- Hartze sigilu bako 201-350gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 6.- Hartze sigilu bako 351-1000gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 7.- Hartze sigilu bako 1001-2000gr. arteko karten banaketa herrian.....
- 8.- Sastar-batze zerbitzuko ordainagiriaren banaketa herrian.....
- 9.- Udaltzaingoen eskumeneko isunen jakinarazpen ziurtatuak herrian.....
- 10.- Tributuak jakinarazpen ziurtatuak herrian.....
- 11.- Administraziozko jakinarazpen arruntak herrian.....
- 12.- Auzoetako jakinarazpenak.....
- 13.- Propaganda, programak eta helbide bako bestelako banaketak herrian.....
- 14.- Posta-etxera/tik eroan-ekarriak..... €/hilero
- 15.- Bando arruntak.....
- 16.- Premiazko Bandoak.....

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

**III. ERANSKINA**  
**Epeen hobatze eredia**

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta .....  
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo .....  
Helbidea eta ..... IFZ daukan .....  
izeneko enpresaren ordeiz,

**AITORTZEN DUT:**

.....  
xedeak daukan kontratuaren lizitazioan, baldintza teknikoetan jasotako epeetan  
hobakuntza honeek egiteko konpromisoa hartzen dodala:

- 1.- Jakinarazpen administratibo arruntak, zerrendarekin doazenean: epea .....  
ordutan murriztu edo hobatzea.
- 2.- Jakinarazpen administratibo arruntak, banatu beharreko jakinarazpenen  
kopuruaz lagunduta doazenean: epea ..... egunetan murriztu edo hobatzea.
- 3.- Jakinarazpen administratibo ziurtatuak: epea ..... ordutan murriztu edo  
hobatzeko.

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

#### IV. ERANSKINA

##### Sexu-diskriminazino zigorrik jaso ez izanaren zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko .....NANarekin,  
..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordeez,

##### KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor edo administrazio-arloko zigorra jaso **ez** dutela.

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

**V. ERANSKINA**  
**Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru**  
**Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren**  
**Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin, ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan ..... izeneko  
enpresaren ordezt,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN**  
**DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari dagozkionak.

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

## VI. ERANSKINA KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid uneko NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan .....izeneko enpresaren ordezt, ..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

### 2014. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2015. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2016. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:

## VII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin, ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:

- 2014. Urtea
- 2015. Urtea
- 2016. Urtea

2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:

- 3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
- 4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2018ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:

**VIII. ERANSKINA:  
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakiduneko IFK daukan .....enpresaren ordezkari eta  
izenean,

**Erantzunkizunpean, Adierazten dau:**

1.- Agiri honek aurkezteko datuz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....
- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daben lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daben langileak bastertuta, guztira: .....
- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daben portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daben langileak bastertuta, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailerari eskatzen deusozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 2018ko .....aren .....an.



## IX. ERANSKINA

### GIZARTERATZEKO ENPRESEA IZANDA, LANPOSTUEN %30EAN GUTXIENEZ BAZTERTZE EGOERAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO KONPROMISOA.

.....jaunak/an  
dreak, helbidea .....duenak  
eta NAN zenbakia .....duenak, bere izenean  
edo .....(ordezkaritzako ahalmenak  
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,  
.....  
enpresaren, egoitza soziala.....eta  
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

#### **Erantzunkizunpean aitortzen du:**

Ordezkatzen duen enpresak Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 betetzen duela.

#### **Beraz, baldintza hori beteta, adierazten du:**

Baldintza agirietako 18. atalean aipatutako esleipen lehentasuna aplikatze aldera, enpresak dauzkan lanpostuen %30ean gutxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatzeke konpromisoa hartzen dela.

Bermeon, 2018ko .....aren .....an.

## X. ERANSKINA

### ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaie.

Horregatik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Kontratatutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako lanpostu ezberdinen **arriskuen ebaluazioaren** eta **prebentzio neurrien** agirien kopia.
- ✓ Lantokian zerbitzua eskainiko duten langileei emandako **informazioaren** erregistroaren kopia eta langile horien **zerrenda eguneratuta**.
- ✓ Langile horiek prebentzioaren arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroen kopia.
- ✓ Enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena** eta **prebentzio baliabidearen** izendapena balego.
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua.

## XI. ERANSKINA

### DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

#### ..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat ..... Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK, .....enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, ..... enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKo UDALaren kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentzialasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, ..... enpreseak onartzen dauzala hurrengo

#### AITORPENAK

##### LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKo UDALaren ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, ..... enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAgaz daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiak agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera, .....enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

## BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezgarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

## HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOko UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean. ....enpreseak, "eragileak", BERMEOko UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOko UDALAK .....enpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

## LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be. ....enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOko UDALAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietara .....enpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

## BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago. ....enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

## SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren

mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2018ko .....aren .....an.